

**JARDUKETA IZENA D5 Ekosistemen zerbitzuen jarraipena**

**Zer KBETan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun**

Proiektuko guztietan

**LOTURA NATURA 2000ekin**

Ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak aztertzearen emaitzak baliagarriak izan daitezke gizartea ekosistemak kontserbatzeko interesaz kontzientziatzeko, eta kontserbazio-ekimenen interesa nabarmentzeko; Natura 2000, adibidez.

**JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:**

Proiektuaren esparru osoa.

**Data**

2016

**Aurrekontua**

9.900 €

**Proiektuaren ekintza loturikoak (jarraipenak)**

Proiektuan aurreikusitako kontserbazio-ekintza guztiak

**Lanaren deskribapena - HELBURUAK**

Ekintza honen helburua da proiektuak ekosistemen zerbitzuetan eragiten dituen aldaketak ebaluatzea.

**Lanaren deskribapena - AURREKARIAK**

Ekokerbitzuak ebaluatu eta agerian gelditzen bada onuragarriak direla sozio-ekonomiarako, errazagoa izanen da jendea konbentzitzea proiektuaren interesaz, eta errazagoa ere haren arrakasta eta iraunkortasuna bermatzea.

Aurreikuspenen arabera, txostena proiektuaren lehen urtebetean prestatuko da; hori dela eta, txostena tresna interesgarria izan liteke proiektua jendaurrean zabaltzeko eta haren aldeko jarrerak sustatzeko.

**Lanaren deskribapena – AURREIKUSITAKO LANAK/JARRAIPENEN DESKRIBAPENA**

Ekosistemek intereseko hainbat zerbitzu eman ditzakete gizartearentzat: ura edo elikagaiak ematea, ziklo konplexuak erregulatzea -hala nola uraren zikloa-, kutsagarriak ezabatzea, etab.

Zaila da kuantifikatzeko, baina halakoak baloratu eta estimuan izaten ditugu. IREKIBAI proiektuak ekosistemen zerbitzu horiek nola aldatuko dituen gogoeta-ekarpen bat egiten saiatze aldera, TESSA metodologia aplikatzea aurreikusia dago, unibertsitatez, gobernuz kanpoko hainbat erakundez eta kontserbazio-agentziaz osaturiko partzuergo batek garatua.

Horren bidez azterketa ulergarri bat lortzen da gizarteak jasotzen dituen onurez eta ekokerbitzuez, eta informazio erabilgarria sortzen da erabakiak hartzeko.

TESSAk proposaturiko azterketa-zerrendak erabiliz, aztertuko da zer ekosistema diren garrantzitsuenak proiektuaren jarduketa-esparruan. Horretarako, eskura dauden datu-iturriak aztertuko dira, hau da, estatistikoak, dokumentalak eta kartografikoak. Pentsatzekoa denez habitaten hedaduran eta kontserbazio-egoeran aldaketak izanen direla, atzemanen da zer ekokerbitzu hobetu eta okerragotu diren proiektua gauzatu izanaren ondorioz.

Ekokerbitzuen ebaluazioa ariketa teoriko bat bezala dago planteatua proiektuan sarturiko habitatek lortu beharko luketen egoera desiragarriaz; beraz, proiektuaren hasieran azter daiteke.

### JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – **ESPERO DIREN EMAITZAK**

- Espero da identifikatzea zer ekozerbitzuren hornidura handitu edo urritu den proiektuaren eraginez.
- Ekozerbitzuetarako zenbatespen kuantitatibo bat lortzea, behar adina daturekin.

